

## Entitate berri bat aurkitu dute giza mikrobioman: obeliskoak

Andrew Fire Nobel sariduna buru duen nazioarteko talde batek entitate berri bat aurkitu du gizakien ahoan eta hesteetan bizi diren bakterioetan. RNA-kate zirkularrak dira, eta obelisko deitu diete, hartzen duten itxuragatik. Birusak baino sinpleagoak dira; hain zuzen, 1.000 nukleotido inguru dituzte, eta ez dute kapsiderik. Hala ere, geneak kodetzen dituzte. Ikertzaileak haien funtzioa eta osasunean duten eragina ikertzen ari dira.



Obeliskoen irudikapena, bakterio baten barruan. ARG.: IBMCP (CSIC-UPV).

### [Cell aldizkarian eman dute aurkikuntzaren berri.](#)


Azaldu dutenez, giza gorozkietatik lortutako sekuentzia genetikoaren azterketa bioinformatikoaren bidez aurkitu dituzte. Metodo hori baliatuta, beste lagin batzuetan ere bilatu dute, hala nola lurreko, ibaietako eta itsasoko ekosistemetan eta animalien mikrobioman, eta guztira ia 30.000 obelisko-mota identifikatu dituzte.

Obeliskoen aurkikuntzak galdera berriak piztu ditu dibertsitate mikrobiologikoaren jatorriaz eta bila-kaeraz. ●

## Ugaztunentzat ez zen erraza izan tente jartzea

Ugaztunak narrastien gisara ibiltzetik tente egotera pasatzea trantsizio konplexua eta ez-lineala izan zen, eta uste baino askoz beranduago gertatu zen.

Narrastien jarrera etzanetik ugaztun modernoaren jarrera tentera pasatzea une erabakigarria izan zen eboluzioan. Gorputz-adarren anatomian eta funtzioan aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren sinapsidoetatik terioetara. Sinapsidoen taldean lehen ugaztunak eta oraindik ugaztun ez ziren arbasoak (ugaztun gisako narrastiak) biltzen dira, eta terioenean, berriz, gaur egungo ugaztunak (martsupialak eta plazentalioak). Bada, orain arte ez zegoen argi jauzi ebolutibo hori noiz eta nola gertatu zen.



Ikertutako espezie modernoan (beltzez) eta desagertutakoan (grisez) arteko erlazio ebolutiboak. ARG.: Peter Bishop.

Orain, eredu biomekaniko aurreratuak eta datu fosilak elkartuta, ikertzaileek ondorioztatu dute lokomozioaren errendimenduak ez zuela eboluzio lineal bat izan, baizik eta gorabehera handiak izan zituela milioika urtetan zehar. Eta, azkenean, egungo ugaztunen jarrera tenteari lotutako ezaugarriek aurretik uste baino askoz beranduago eboluzionatu zutela, ziurrenik terioen arbaso komunetik oso gertu. ●